

# Noaqua!!

H A M A B O S K A R A

2002ko urtarrilaren 11a VII.urtea

Usurbil, 127. zenbakia



**Elgetaren soinua, ihes  
egin digu harribitxia**



SAGARDOTEGIA

Txotxetik  
sagardoa  
jarraitu  
usadioa

**Urtarrilaren  
11ean  
zabaltzen  
dugu!**



Santuenea

Tel.: 943 36 50 31  
Mobila: 670027731

**URDAIRA**

**Sagardotegia**

*Urtarrilaren 15ean irekiko dugu!*




*Aginaga, Telf: 943 37 26 91  
Egunero irekita, igande gauetan izan ezik.*

*Zabaldu berria!*

**Ganbarra**

*Opari, jostailu eta etxe-ko tresneria*



Munalurra 4 - Usurbil  
tfnoa: 943 36 55 49

**0,60 eurotan edo  
gehiago**

## Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Arantxa!** Urtarrilaren 3an 23 urte bete zenituen, muxu handi bat lagunen partez. Ah! eta errondarik ez zenuen ordaindu! Beraz, badakizu.



Zorionak **Iraia** eta **Ianire!** Etxeko zaharrenak 7 urte bete dituzte dagoeneko eta txikiak 4 urte. Beraz, zorionak eta muxu handi-handi bat etxekoan partez.



Zorionak **Jokin!** Urtarrilaren 13an 6 urte beteko baitituz. Ari zara pixkanaka gizontxo txiki bat egiten. Zorionak eta ondo pasa etxekoan partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tartea hau erabili dezakete. Ekarri beharrekoa, testua eta argazkia.

Hurrengo alea: urtarrilak 25

Ekartzeko azken eguna: urtarrilak 21

## Jaiotzak

**Eider Orbegozo Calvo**  
2001-12-08

**Nahikari Etxeberria Luluaga**  
2001-12-21  
Munalurra

**Aimar Mindegia Zaldua**  
2001-12-27  
Zubieta

**Asier Iurretagoiena Lazkano**  
2002-01-01  
Munalurra

## Hildakoak

2001-12-20  
**Jose Garcia Gomez**

## Akatsak zuzenduz

Gogoratuko duzuenek, azken aleko portada "Kostaldeko trenak Usurbilean iritsi zireneko" titulupean kaleratu genuen. Noaua irakurtzen hasi, eta hara! erreportairik ez. Nonbait, kostaldeko trenak ihes egingo zuen, halaxe pentsatu zenuen zuetariko askok. Beno ba, lasai! izan ere, gai horri zegokion erreportaia ale honetan irakurtzeko aukera izango duzuelako.

## Udaltzaingoaren ordutegia

### Astegunetan

6.00/22.00

### Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu deitu telefono honetara

943-361112



Noaua aldizkaria!  
Bordaberri 3  
Usurbil

Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartearen badabilkizu edo eta herriko zer-

bailetaz hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizuegu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua'n argitaratu emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eramanez edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

Urtarrila						
Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			
● Hurrengo alea						



## Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaia! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02  
E-mail: noaia.k.e@euskalnet.net  
Web orria:  
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaia>

**Kazetarien koordinatzailea**

Imanol Ubeda

**Kazetariak**

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta  
Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea**

Agurtzane Solaberrieta

**Zuzentzailea**

Eneko Harreguy

**Kolaboratzaileak**

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloe Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

**Bazkidetza**

Aitziber Aranberri

**Erredakzio Kontseilua:**

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika,  
Garikoitz Udabe eta Agurtzane  
Solaberrieta.

**Informatika**

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

**Banaketa**

Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta  
Kerman Errekondo

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaia! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaia! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan**

**AZALA**

**Elgeta trikitilaria eta orain arte larben egon den bere soinua**

**Segurtasuna mendian****Joxe Mari Ikutza****Andatz K.K.E.ko kidea**

Urtetan zehar mendi istri-pu ugari izan da. Euskaldunok ere, halabeharrez, gertutik bizi behar izan ditugu halako albiste tristeak; batzuku aipatzearren, Felix Iñurategi Himalayan hil zenekoa, Pirineotan hil ziren Santutxuko bost gazteena edota Pumori mendian hil ziren bost lagunak. Urrutiko eta munduko mendi garaienak irudiak izan arren, gure inguruko mendietan ere gertatu ohi da halakorik.

Urtez urte geroz eta nabaria goa da mendiarekiko dagoen zaletasuna. Eta segurtasun mailan ere asko aurreratu da. Baina, nahiz eta prestatuago egon, entrenamendu aldetik, edota janariari dagokionez, mendiko materiala, arropan eta abar, larrialdietarako prestakuntzez sarri ahaztutzen gara. Mendizaleok ezinbestekoa dugu larrialdietarako prestakuntza egokia izatea, mendikide batek laguntza behar izanez gero, esate baterako.

Datuek diotenaren arabera, nahitaezkoa den prestakuntza honekin lesio eta ustekabe ugari sahistuko genituzke. Eta, gainera, oso garestiak diren larrialdietarako zerbitzuak hainbestetan ere ez genituzke erabiliko.

Prestakuntza mota honetaz



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

gain, badago kontuan hartu beharreko hamaikatxo kontu ere; besteak beste, mendian ibiltzeak sortzen duen arriskua, mendira joatean zer nolako eguraldia topatuko dugun jakitea, ze ibilaldi egingo dugun eta mapak eta bruxula erabiltzea ere ez legoke batera gaizki. Informazioa alde zurretik izatea hau oso garrantzitsua da.

Honetaz guztiaz jabetzen garen momentutik, mendiaz gozatuko genuke. Gainera, nekeak ere ez dizkigu hainbeste karranpa, zaintiratu eta erreflexu falta sortuko.

Bestalde, goi-mendian bagabiltza, aklimatazioa kontuan hartu beharrekoa izango dugu, "altuerako gaitza" eduki ez arren.

Aholku hauetaz guztietaz gainera, mendiko materialarekin ere ez dugu deskuidatu behar. Izan ere, botak, txamarak, pioletak eta abar oso garrantzitsuak baitira babak, hotzikarak eta elurretako erorketak, besteak beste, neurri handi batean ekidin ahal izateko. Zauri txiki hauek sendatzeko motxilan botikin txiki bat sartzea ere ez legoke soberan.

Andatza K.K.Eak asegurtzea gomendatzen du eta ondo pasa mendian, zikindu gabe noski.

## Josu Aranberri: "Noaua! utzi dut baina aberasgarria izan da hemen aritzea"

Josu Aranberri aldizkari honen koordinatzailea izan da azken urte hauetan. Aldizkaria zein elkartearen sortze-lanean ere aritu zen. Denbora tarte honetan, aldizkaria hutsetik abiatu eta argitalpen sendo batean bihurtu da. Esperientzia aberasgarria izan dela aitortu digu eta pozik dago epe honetan Noaua! aldizkariak hartu duen pisuarekin. Bere esanetan, aldizkaria erreferentzia garrantzitsua da usurbildar guztientzat.

### Zenbat denbora egin duzu Noauan?

Lehen zenbakia 1996ko Santixabel egunean argitaratu genuen. Kazetaritza ikasten ari ginen lau lagun hasi ginen: Garikoitz Udabe, Idoia Torregerai, Ainhoa Azpiroz eta ni.

Azken lau urteotan ni bakarrik aritu naiz kazetari bezala, Agurtzane eta Amagoiaren laguntzarekin.

### Dena den, bestelako lanak



**egitea ere egokitu zaizu, maketazioa egitea, argazkilari lanak...**

Niretzat benetako unibertsi-tatea izan da hauxe. Sartu nintzenean informatika ezagutzarik ez nuen eta denetatik ikasi behar izan dut. Zentzu horretan, eskola ona izan da niretzat.

**Sei urteren buruan, Noaua! erreferentzian bilakatu dela esan daiteke, ezta?**

Bai, nik uste dut baietz. Hasieran jendeak ez zuen aldizkaria ezagutzen baina

gaur egun bada erreferentzia herrian, aipatzekoa da dagoeneko 500 bazkidetik gora ditugula elkartearen. Horrek ere zerbait esan nahi du. Orain kultur arloa ere jorratzen dugu baina erreferentzia nagusia aldizkaria da.

**Jendeak informazio fresna moduan hartu du, beraz.**

Gaur egun, jendeak kalean harrapatu eta hainbat ideia eta proposamen botatzen dizkigu. Kultur taldeek, esate baterako, zerbait daukatenean idatziz ekartzen dituzte euren kontuak.

**Amaitzeko, balantze moduko bat egingo al zenuke?**

Urte hauetan guztietan jende asko ezagutu dut. Hasi ginenean ez genuen uste Noauak hamaboskari bezala 7 urte egingo zituenik. Horrek lan asko eman dizkit bai niri eta baita inguruan izan ditudanei baina esperientzia aberasgarria izan da.

## Imanol Ubeda: "Lan egiteko gogoz etorri naiz"

"Noauara? Hori da, noaua?". Horixe bota zidak amak etxean Usurbilera etortzeko asmoa nuela azaldu nioenean.

Arrazoirik ez zaio falta amari, urruntasuna ez baita guztientzat hain eramangarria. Baina hemen lan egiteko ilusioa erabakigarria izan da.

Tolosatik nator eta hango herri aldizkarian aritu naiz lanean azken 5 urteotan. Beraz, herri-prentsaren nondik norakoak ezagutzen ditudala esan dezaket.

Globalizazioaren garaian

bizi gara baina, era berean, gertuko informazioak ere izugarrizko garrantzia du. Horren lekuko dira herri aldizkariak, tartean, nola ez, Noaua!

Hasteko bi dira nire buruari jarri dizkiodan eginbeharrak: herria eta herritarrak ahal den neurrian ezagutzea, batetik; eta Usurbilgo herri-dinamika barneratzea, bigarrenik.

Ez nuke idatzi hau amaitu nahi, nire aurretik eta aurrerantzean ere, argitalpen honetan lanean aritu direnen lana eskertu gabe. Dagoe-



neko sendo dabilen proiektu batera iritsi naizelako.

Lanean hasteko ordua da. Jakin ezazue, orain arte bezala aurrerantzean ere, zabalik dituzuela aldizkariaren ateak.

# SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



## Merkataritza euskalduntzeko kanpainari bai!

**M**erkataritza euskalduntzeko kanpaina bere azken txanpan sartu da dagoeneko, eta gure auzoan ere utzi du arrastorik. Auzoan ditugun establezimenduek ere bat egin dute kanpainarekin, eta bakoitzak, konpromiso ezberdinak hartu ditu.

Noaua! Kultur Elkartea eta AEK euskaltegia herriko merkataritza euskalduntzeko egitasmo hau gauzatzeaz arduratu dira eta kanpainaren lelo nagusia **"euskaraz eros-teak eztu prezioik"** izan da.

Kanpainaren tresna nagusia udalaren eta establezimenduen artean landu diren hitzarmenak izan dira. Hauen

bidez denda, taberna eta jate-txe bakoitzak bere establezimenduan euskararen presentzia areagotzeko konpromisoa hartu du eta, orain, udalak horretarako beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu.

Arestian esan bezala, auzoko establezimenduek ere hartu dute konpromisorik, hala nola,



Tragoxka tabernak, Esnaola dendak, San Esteban tabernak, Zahar Egoitzak, Tandy dendak eta Arruti Ardoak. Esan behar da, oraindik kanpainaren arduraduna ez dela Merke tabernatik pasa.

Beraz, orain merkatariek ez ezik, auzotarrok ere badugu ardurarik kanpaina eta egitasmo honetan. Azken finean, merkataritza euskalduntze bidean merkatariek eta herritarrok hartu behar baititugu konpromisoak. Auzoko establezimenduetan auzotarrok dugu euskararen erabilera bultzatzeko ardura. Lelak dioen bezala, euskaraz erosteak ez baitu prezioik.

# URDAIAGA

Joseba Zubeldia



## Firma bilketa bidean argiak eskatuz

**U**rte berri on!

Aurten ere, urtero legez, Urdaiagatik jaitsi ziren herrira hiru erregeak urtarrilaren 5ean, beraien zaldietan eta pajeen antortzez babestuta.

Hala, hemen goialdeko auzotarrok ez genuke aukera hau galdu nahi erregeei eskaera bat egiteko. Joan den urtarrilaren 5en erregeen paseoa nahikoa argitsua izan bazen ere, horretarako zituzten lagun antortzak, beti aipatu izan dugu auzo honetara igotzen den errepidea oso iluna dela. Eta bertan izaten den gora eta beheko mugimendua dela

eta -oinezkoak, autoak, bizikletak...- oso arriskutsua gertatzen da askotan.

Hau ikusita, San Estebanen etxez etxeko firma bilketa bat egin eta Udaletxera aurkeztu da eskaera; hau da, bai Santuenetik eta baita Txokoaldetik igotzen den errepidea ere argitzearen eskaera.

Ea bada erregeei eginiko eskaera aintzat hartu eta hurrengo urterako betetzen den. Auzotarrak zintzo

edo gaizki portatu, bete beharrekoa da eskaera. Mesedegari izango baita guztiontzat, bai hemen bizi garenontzat eta baita hona gerturatzen direnentzat ere.



## KALEZAR

Urko Manterola



### Urte berriak ekarriko al du berririk

**D**enon ahotan dabilta azken egun hauetan urte berria, diru berria eta halakoak. Aurtengoa, gainera, kapi-kua dela eta berezia izango omen da, batzuen ustez onerako eta txarrerako beste batzuen iritiz, bikoitia den urtea ez omen da zorteko izaten eta. Kontuak kontu, aurtengo hau agian berezia izango da Kalezarren.

Joan den urtarrilaren 6an, errege egunez, junta izan zen Peña Pagola elkartearen eta eztabaidatu beharreko puntuen artean zegoen emakumeak bazkide gisa onartu edo ez. Azkenean, han bildutako guztiak ez zirela ados jarri eta,

berriz ere mahai gainean gertatu zen eztabaida hau, hurrengo batean erabakitzeke edo.

Kolore guztietako iritziak dira beti errespetatu beharrekoak, ulertu edo ez, baina benetan poztuko nintzateke urte berriak gure auzoko elkartera berrikuntzak ekarriko balitu eta emaku-



meei ere tokia egingo balie. Herriko beste elkarte batzuek eman dute dagoeneko pausua.

Aitzagan, adibidez, hasieratik onartu zituzten emakumeak. Santueneako Ibai-Ondon eta Txokoaldeko Erroizpen ere hartu zuten emakumeak bazkide gisa onartzeko erabakia. Atxegaldeko Mahaspildegia, Aginagakoa eta Andatzpe gelditzen dira oraindik lehen-goan.

Halakoetan adostasuna lortzea ez da erraza izaten baina eztabaida mahai gainean jar-tzea ez da txarra, horixe da lehen pausua. Ikusiko dugu zer ematen duen.

## ATXEGALDE

Ione Eizmendi



### Ongi etorri diru berri

**O**ngi etorri urte berri esanaz hasiko naiz oraingotan. "Urte berri, amets berri. Urte berri, diru berri".

Dena den, heldu beharko diogu urtarileko aldapari. Gainera, ditxosozko "euroa" dela eta, hemen gabilta asmatu ezinik. Pezetak alde batera utzi eta berriarekin hasi behar: hila-beteak, txanponak, xentimoak, denak ezagutu arte badaukagu nahiko nahasketa!

Gure auzoan ere honela gabilta. "Aldatz"-era edo "Truke"-ra joaten bagara, ordaintzerakoan oraindik pezetatan edo eurotan egiteko aukera daukagu. Ordainketa

nola egin nahi dugun galde-tzen digute, eta berdin "Alkorta" harategian ere.

Horixe da 2002. urteak ekarri digun aldaketarik haundiena.

Baina har dezagun lasai, laster ohituko gara eta. Hurrengo urteko Gabonetan ederki moldatuko gara: umore onez hartu eta ongi-etorria eman diezaiozun, beraz, gure

euroari.

Seguru herriko edo auzoko norbaitek Erregeetako loterian zortea izan badu, ez duela batere arazorik izango euroekin!





# TXOKOALDE

Iñaki Labaka



## Jela, zarata eta jatena urtea bukatzeko

**U**rte berri on denori. Hemen gara berriro.

Aurtengo gabonak izugarri hotzak izan dira, azken urtetan ezagutu ditugun hotzenak dudarik gabe. Gabon gauan, gure txokoan goizaldean sei gradu zero azpitik jaso zen. Giro ederra lepo jan eta gorputza bizitzeko edan ondoren etxean epelean egoteko. Oheratzean, egun hauetan egin duen jelarekin, okupak etorri zaizkit burura, Irisasi etxetik alde egiteko agindua jaso bazuten ere, oraindik bertan jarraitzen baitute. Edo Errota etxean bizitzen jarri berri direnak. Azken hauetako bat gabonak baino lehenxeago anbulantzia erie-

txera eraman zuten egoera nahiko kaskarrean. Horiek denak hotz ikaragarria pasako zutela pentsatzen dut.

Azken urteetan bezalaxe, ohitura zaharra jarraituz haur talde pare bat ibili zen etxez etxe eta baserri kantari giroa alaituz eta txanpon batzuk jasoz. Beraiek ekarri zuten auzora gabon kutsu bakarra eta benetan eskertzekoa da.

Urte zaharrean, berriz, euroaren etorrerak zenbait auzokide asko poztu zuen nonbait, eta ongietorri berezia ematea bururatu zitzaion. Hala, hamaiak jo bezain pronto suziak bota eta bota hasi ziren. A ze iskanbila sortu zuten, izugarriko

zarata denak lehertu arte. Gero pake santua berriro.

Bukatzeko, bapo jango zutenak Toshack eta errealak ekarri berri duen atezaina izan ziren. Euskal Herri erdia Belodromoko Bertso txapelketari begira zegoen bitartean, bere kontratua mamitzeko Saltxipin egin omen zuten bilera. Bai jakin ere nora etorri, entrenatzaileak ez du lehenengo aldia. Kontua da atezaina bedeinkatua aterako zela, ordu ezker, bi partida jokatu eta ez baitiote errealarik golik sartu. Ea hurrengoan bilbotarren aurka bere horretan jarraitzen duen, eta bi azken urtetan baino lasaiago bukatzen dugun denboraldia.

# KALEBERRI

Ines Kamino



## Zaharrari agur eta kaixo berriari

**K**aixo, hemen nago berriro. Kere, urte berriari eskutik helduta.

Eta berria estreinatatu berri, zaharra ere ez nuke ahaztu nahi, pasa berri dugun abenduko hilabetea oso mugitua izan da eta.

Nahi izan duenak gauza asko izan ditu ikusgai; udal fototekak antolatutako argazki erakusketa, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia, Santo Tomas azoka,



Jon Maia eta Xabier Amurizaren bertso antologia... Noaua!k, Udalak eta herriko hainbat tal-

dek antolaturiko hilabete kulturak hamaika aukera eskaini dizkigu.

Eta berez gabonak ematen duen paseorako aukeraz gain, abenduaren 30ean Urrezko Aizkora Txapelketako fase bat herriko frontoian jokatu zen. Jende ugari bildu zen plazara eta azkenean, Peña-

garikano eta Barberena izan ziren irabazleak. Arratsaldean, ordea, eta urtero bezala, herriko gudariak omendu zituen ekitaldia izan zen.

Eta zaharraren azken arrastok gainera erreparatuta berri sartu behar bete-betean. Honekin batera etorri zaigu euroaren eromena. Lasai hartu beharko dugu, ohitu beste erremediorik ez dugu eta. Hemendik hilabete batzutura dena normalduko da eta oraingo burukomin guztiak ahaztuta izango ditugu. Ziur. Aurrezki kutxetako langileek, esate baterako, ez dute aspaldiko urtetan hainbeste lanik egin.



# AGINAGA

## Direnak eta ez direnak...

**N**egu bizi-bizian gauden honetan, hotza nahi adina daukagu (elurrik ez!). Baina, hala ere, ehiztariak (gehienetan pistolero hutsak) hor dabilta direnak eta ez direnak bota nahian, Aginaga-

ko mendi eta erriberetan. Tiro hotsak eguzki izpiekin batera hasten badira ere, ez dakit, bada, kaioei aritzen ez ote diren...

Beste batzuek, ordea, eguzkia sartu zain egoten dira,

**Oxkar Santamaria**



angula aleren bat harrapatze-ko esperoan. Baina hauek ere ibaiko zikinkeriarekin konformatu behar, angulak, behintzat, aurten inoiz baino gutxiago ditugu hemen eta.

Hala, erregeek txanpon madarikatu berria ekarri badi-gute ere, ez angulik eta ez frontoirik ere ez dugu oraindik ikusi. Ea, bada, urte berri honek ekartzen dizkigun aginagatar-ron hainbeste desio ditugun bi nahi hauek.

Bukatzeko, eta ahaztu gabe, aginagatar eta usurbildar guz-tiei urte berri ona opa nahi diet eta txintxoak izan daitezela eskatu.. ahal dutenean.



# ZUBIETA

## “Txuri-Urdin” gurean

**G**ure bizitza eta denbora zein azkar doazen ikusita denok harrিতuta gelditzen gara. Duela gutxi gabonak oso urruti ikusten genituen, segituan gainean genituen eta, orain, pasa zaizkigu dagoeneko. Gabonek negua esan nahi dute eta, honekin batera, eguraldi txar-rrak eta tenperatura baxuak.

Guztiok badakigu Zubieta oso leku hozpela dela eta neguko eguraldi txarren ondorio nabar-mena gelditzen dela. Gabon hauetan hotza izan dugu nagusi, honek goizeko izotza ekarri du, baina, batez ere, Ameri eta Artzabaleta arteko bidean. Laupabost egunetan ez da izotzik kendu ere egin

eta errepidea oso arriskutsua izan dugu. Hala, hainbat oinez-ko eta auto ere ibili dira irrista txikiak egiten, eta beste batzuk ez horren txikiak.

Honen adibide ditugu egun bakarrean gertaturiko hiru istripu. Hiru hauetan kotxeak izan ziren nagusi, errepidetik atera



**Alex Udabe**



eta belardian iraulita geratu ziren eta. Istripu hauetako batean suhiltzaileek ere etorri behar izan zuten salbamendu-rako. Bigarren egunetik aurrera, eta egoera ikusita, gatza bota zuten errepide guztian.

Nire iritziz, ordea, seinalizazio egokia falta zen. Bi tripode antzeko jarri zituzten baina hauek ez zuten zehazten zein arrisku mota zegoen bidean eta hortik pasatako askok ez zuen espero ere egingo gero topatutakoa.

Ikusitakoak ikusita, argi dago halako egoeretan autoarekin mantso-mantso ibili beharra dagoela, bai Zubietan barrena pasatzerakoan, behintzat.



## Askatasuna Plaza...

Izena jarri diote, nahiz eta jende askorentzat Esperantzaren Plaza zen. Batez ere, haur txikiak dituzten gurasoentzat. Gehienok, plaza hori erakuntza-lanen ondorioz leku egoikiago umeentzako bihurtzea espero genuen.

Zoritzarrez, inauguratuz geroztik hilabete batzuk pasa ondoren, guraso gehienok ez daukagu oso iritzi ona emaitzari dagokionez. Hala ere, arazoek konponbidea badaukatela uste dugu. Horregatik, gure kezka eta kexa adierazteaz gain, konponbidea ere eman nahi genituzke.

### Segurtasun hutsegiteak

Plazaren baranda guztietan aurki dezakegu arazo berbera: barandek barra horizontalak dituzte, hau da, umeentzako primerako eskailera. Gainera, errepide ondoan dagoen barandari barra bat falta zaionez, ume txikiak erortzeko zulo aproposa geratzen da.

Beste alde batetik, aldameneko irudian ikus daitekeen hegalean ibiltzen dira gure umeetako batzuk.

Txikiegi izateaz gain, haur par-

kea eta psikomotrizidadeko gunea hurbilegi daude. Ondo pasatzeko lekurik ez baldin badago, are gutxiago segurtasunez jolasteko.

Plazaren zoruari dagokionez, estropozu egiteko modukoa dela jakinarazi nahi dugu

Baina, segurtasun hutsegiterik okerrera aldameneko irudian agertzen den zebrabidea da. Edozein haur eskaileratetik korrika jeits daiteke, eta errepide erdiaraino iritsiko da konturatu gabe. Horretaz gain, gidariak (irudian agertzen den bezala) ezin dute ikusi nor agertuko den harresi horren atzetik. Beraz, kontuak atera, zer gerta daitekeen.

### Erabilerarik eza

Nahiz eta haur parke aldean lekurik izan ez, beste aldean hutsune handia dago. Eta dirudenez, festetan txoznak jartzeko bakarrik balio du.

Euria ari duenean, jendea teilape azpian izan daiteke, baina normalean betiko lekuan (hau da, frontoian) izatea nahiago du. Akaso, teilape azpian jesarlekurik ez izateagatik?.

Bolatokiari dagokionez gauzapore bat esan nahi genuke: bata, oso gutxi erabiltzen dela, eta bestea, haurrentzako zikin-keria-gunea besterik ez dela. Hori dela eta, bolatokiko eserlekuak erabilezinak dira.

### Soluzioak

Hona hemen, gure ustez, aipatutako arazoaren konponbide errazena eta merkeena:

Barandak goitik behera barrez egin eta hutsunerik gabe.

Haur parkea handitu eta beste aldean kokatu.

Plaza osoaren zorua berdindu (frontoian bezala)

Zebrabidearen ondoan dagoen harresiaren altuera gutxitu eta eskaileraren aurretik luzatu zebrabidea lekualdatuz.

Teilape azpian jesarleku egoikiak jarri.

Igandero herriko bola-txapelketak antolatu.

Bola-pista estali erabiltzen ez den bitartean.

Bola-pistaren ingurua txukundu.

**Hamabost bat guraso**

## Udal fototekaren izenean eskerrik asko gure ondorea berreskuratzen laguntzen saiatu zaretenoi

2001eko abenduaren 19tik 30era Udarregi Zaharrean udal fototekaren erakusketa egon da herritarrontzat. Bertan Udaleko zenbait argazkiez gain, orain arte digitalizatu diren Udaleko zein zenbait herritarren argazkiak ikusteko aukera izan dugu.

Garbi geratu da herritar askok interes eta gogo handia jarri dugula gure kultur ondarea zaintzen eta aberasten laguntzeko bidean.

Eskerrik asko beraz, 12 egun hauetan gerturatu zareten guztioi, 420 lagun inguru.

Eskerrik asko argazki zaharren kasuan bertan agertzen diren pertsonen izen-abizenak eman dituzuenoi, zuek gabe ezingo genukelako argazki bakoitzari dagokion fitxa erabat osatu. Eta eskerrik asko udal fototeka osatze bide honetan zuen etxeetan dituzuen argazki zahar zein berriak etorkizunean guztiona izango

den txoko honetan gordetzen uzteagatik.

Aurrerantzean proiektu honetan laguntzen jarraitu nahi baduzue edo udal fototekari buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, udaletxera jo dezakezue eta udal fototekaren arduradunarekin harremanetan jarri.

**Udal fototekako arduraduna  
Zalao Arnaiz**

## Batasunak Urriaren 30eko plenoa dela eta, hainbat argibide eman nahi ditu

**H**amaika ikusteko jaiok garelako dio esaldi zaharrrak eta denetik ikustera ohituta gaude. Usurbilgo PNVko bi zinegotziek marka guztiak hautsi dizkigute oraingoan ordea.

Zuen joku zikinaren abiapuntua 2001eko urriaren 30eko Osoko Batzarrean kokatu behar da. Bertan egon zineten Julian Beraetxe eta Andoni Atxega PNVko zinegotziak, Batasunako beste seirekin batera (Agustin Lizaso, Xebas Cardenas, Karmele Hevia, Niko Bengoetxea, Xabier Orbegozo eta Koldo Lizaso) eta EAKo beste birekin batera (Luis Mari Ormaetxea eta Agustin Esnaola). Gainera, beste 30 herritar inguru ere Batzar Aretoan zeuden, guztiaren lekuko.

Denok, berriro diot, denok, oso garbi ikusi genuen erabakiak nola hartu ziren eta gai zerrendako puntu bakoitzean nortzuk eman zuten aldeko botoa eta nortzuk ez.

Oso garbi ikusi genuen denok, Usurbilgo herriak aukeratutako alkateak, Espainiako Epaitegiak urtebetez inhabilitutako gizonak, Joxe Antonio Altuna Jaunak ez zuela inolako botorik eman egun horretan aztertu ziren hamar gaietan.

Hori guztia oso argi eta garbi

ikusitako genuen arren, norbaitek, fede txarrez eta maltzurkeriz, Osoko Udalbatza hartako akta manipulatu egin du eta gezurra jarri du; hau da, 8. puntuko bozketan, puntu horretan Altuna Jaunak aldeko botoa eman zuela idatzi du plenoko aktan. Non eta puntu horretantxe bakarrik. Beste 9 puntutan ez da ezertarako agertzen.

Delitua izan daitekeena eta zalantzarik gabe gezur nabarmena denaren egilea nor izan den oraindik argitu ez bada ere, gezurra nork erabili duen oso garbi adierazi digu PNV taldeak.

Aipaturiko akta onartu arte maltzurkeri osoz zain egon ondoren, Andoni Atxega Jaunak, EAJ-PNV zinegotzi taldearen izenean eta ordezkari izan idatzi gezurtia sartu du Erregistroan, azaroaren 29an, 5211 sarrerara zenbakiarekin.

Gaztelera hutsean aurkeztutako idatzian honelaxe zioten hitzez hitz: *"Teniendo en cuenta el Acta del Pleno del pasado día 30 de octubre, aprobada en el Pleno del día 27 de noviembre, constatamos que hubo una persona que no es en la actualidad miembro de la Corporación del Ayuntamiento de Usurbil, el Sr. D. Jose Antonio Altuna, y que votó el acuerdo tomado en el*

*Pleno del día 30 de octubre pasado en el punto referente al nombramiento de los nuevos miembros del Tribunal para la provisión de la plaza de Técnico de cultura y Normalización Lingüística".*

Azala behar du hain gezur nabarmena norberaren interesetan erabiltzeko. Aurpegia behar du, norbaitek intentzio txar guztiz egindako manipulazioa aprobetxatzeko (bien iturburua berdina ez bada behintzat). Muturra behar du Usurbilgo Udalak aukeratutako Alkateari horrela iseka egiteko.

Zuen jokaera gezurtiaren lekuko gara Usurbilgo zinegotzi talde desberdinetako ordezkariak (Batasuna, EA, baita EAJ-PNV bera ere). Ez ordea zinegotziak bakarrik, baita udal langileak eta Osoko Udalbatzako bileran bertan egon ziren dozenaka herritarrek ere.

Jatortasun eta duintasun izpirik gelditzen bazazizue, onartu ezazue hanka sartu duzuela eta gezurra erabili duzuela, gezurra zela jakinda gainera. Zuen hutsugite larria onartzen ez duzuen bitartean, ez duzue merezi aintzakotzat hartzea.

Zuen erantzunaren zain geratzen gara.

**Herriko Batasuna**

**ERRAZKIN**

**Igeltseritza  
orokorra**

Kale Nagusia, 1  
Telf: 943 37 26 79 eta 36 51 25  
Santuenaga Mob: 629 42 05 65

**MAHUKA**  
**BEHERADENAK**

Gizon eta emakumezkoen  
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

**IGELTSERITZA**

**URDANTZI, C. B.**

Mugikorra: 649435475  
649435476  
☎ 943 363370- 361439



## Elgeta trikitilariaren soinu txikia jada ez dago larbe baserrian

**G**aur egungo trikitilari guztiek Jazinto Rivas Elgeta izan dute maisu. Bere iturritik edan baitzuten Guda Zibilaren osteko trikitilari gehienek. Musikari trebea zen eta bere garaian oso ezaguna izan zen. Bakar-dadean hil zen, seniderik gabe eta lagunik gabe. Gertatu zaigun arrasto bakarra Euskal Herri osoan barrena erabili zuen soinua da. Aginagako baserrian 30 urte egin ondoren, Iker Goenaga trikitilariak eskuratu berri du hizpide dugun soinu fresna.

Usurbilen izan da duela gutxi arte Jazinto Rivas Elgetaren azken arrastoa. Trikitilari ezagunaren soinu txikia urtetan larbe baserrian egon izan bada ere, Iker Goenaga trikitilariak bereganatu berri du ia galtzear egon den "harribitxia". Harribitxia diogu Elgeta maisuak bere ibilbide osoan soinu bakarra izan zuelako, larbetik Zizurkilerara joan dena.

### Elgeta zenaren azken arrastoa

30 urte egingo dugu atzera. Zialtzeta trikitilariak Damaso Lizasori saldu baitzion 1972. urtean Elgetaren soinu txikia izan zena. Ordurako hila zen Jazinto Rivas, Elgeta. Zialtzetak oso ondo ezagutu zuen bera-rekin jotzen aritu zelako. Damaso Lizasok, ordea, ez zuen ezagutzeko aukera izan. Baina trikitixazale amorratua izanik, haren soinu txikia eskuratzeko gogoia piztu zitzaion. "Zialtzetak bizpahiru soinu saltzeko asmoa zuela jakin nuen. Nik ez dakit trikitixa jotzen baina zalea naiz. Horregatik hartu nuen. 65.000 pezeta ordaindu nituen garai hartan".



Elgetaren soinu txikiak larbe baserrian egin ditu azken 30 urteak.

Eta egia esan, ez da diru gutxi. Baina merezi zuen. Askotan entzun zituen Elgetaren inguruko kontuak eta abenturak. Trikitilari zuzenean ez ikusi izanaren pena haren trikitixa eskuratzearekin arindu zuen. Hala aitortu zigun larbe baserria joan ginenean: "Sakabi eta konpainia ezagutu nituen baina Elgeta ez nuen ikusteko aukerarik izan".

Duela 30 urte hartu zuenetik, asko izan dira Elgetaren azken arrastoaren bila larbera hurbildu direnak. Tartean, Sakabi, Laja eta Joseba Tapia trikitilari ezagunak. Hala azaldu zigun Damaso Lizasok: "denbora batean Joseba Tapiari utzi nion, soinu handitik soinu txikira pasa zen garaian".

Arestian aipatu bezala, asko dira soinu txikia eskuratzeko asmoz larbe baserrian ate joka ibili direnak. Iker Goenagak eskuratu baino lehen, Trikitixa Elkarteko bi lagun izan ziren Damaso Lizasoren baserrian, Mikel Marquez eta Mikel Alkorta. Elkarteak Elgetari buruzko liburu bat argitaratu berri du eta aurkezpen ekitaldian erabili nahi zuen. Mikel Markezek, ordea, larben izan

zenezan era kaxkarrean ikusi zuen Elgetaren soinua izandakoa: "Irunera eramán genuen konpontzera baina teknikoak ezer egiterik ez zela esan zigun. Pipiak jota zegoen. Ia galtzear zegoela esango nuke. Horregatik ez genuen liburuaren aurkezpen-ekitaldira eramán. Hala ere, Damasori argi esan genion horrelako fresna bat egoera horretan ikustea penagarria zela; betiko izorratzeko arriskua zuela".

Agian horregatik, akaso Trikitixa Elkartearen hitzak eraginda, soinua esku egokietan uztea erabaki zuen Damaso Lizasok.

Hala ere, kostata hartu zuen erabakia: "asko izan dira soinu honen atzetik ibili direnak. Baina edozeini ez nion eman nahi. Orain badakit Iker Goenagak konpondu eta ondo zainduko duela".

Orain pozarren dagoena Iker Goenaga trikitilari da. Lajak edota Tapiak lortu ez dutena berak egin ahal izan duelako. Zizurkildar gazteak aitaren ahotan entzun zituen Elgetari buruzko lehen kontuak. Gero-ra, Elgeta maisu handia izan

zela jakin zuen. Estimatzear gain, asko miresten du Elgeta: "Inork baino tonalidate gehiago erabiltzen zituen. Jotzeko era berezia zuen eta haren eskolakoak gara gaur egungo trikitilariak".

Hizpide dugun soinua, ordea, duela gutxi izan zuen aurrez aurre. "Egoera tamalgarrarian zegoen. Botoiak puskatuta eta egitura pipiak janda. Hala ere, ahotsak oso ondo zituen, herdoildu gabe", esan digu Iker Goenagak. Kepa Baraiazarra Gernikako soinu-konpontzailearengana eramane du: "Errestaurazio lan handia dago egiteko. Baina nik uste dut konpondu ahal izango dugula". Hala ere, presik ez du. Erabiltzeko asmoa badu ere, batez ere duen balio sentimentalarengatik eskuratu baitu.

Soinua ere bere horretan berezia da Ikerrentzat, "23



Intxuzabal ezizenarekin ere ezaguna zen Elgeta trikitilaria.

botoi dituen lehengoetakoa baita".

Hala ere, Elgetaren soinu txikia eskuratzeko ahalegina ez da samurra izan. Ikerrek aitortu digunez, "bitartekari baten laguntzaz eskuratu du". Hala ere, ez du izenik alpatu nahi izan ezta ordaindutakoa zen-

batekoa izan den.

Gaur egun proiektuak ez zaizkio falta trikitilari gazte honi. Oskorri eta Erramun Martikorenarekin ari da zuzenean. Aurrerantzean, zuzeneko emaldietan soinu berri bat izango du eskura. Maisutzat duen Elgetaren soinu txikia.

## Zialtzeta: "Maisu ona zen baina gogor samarra"

**Hil eta gero Zialtzetak jaso zuen Elgetaren soinu txikia. Oraindik gogoan ditu harekin bizi izandako pasarteak.**

**Esaten den bezain trebea al zen?**

Partikularra atera zen hura. Nik Aiako Santiotan ezagutu nuen. Plazan jarri eta hantxe erdian tente-tente, purua erre eta soinu mugitzen zuenik ez zuen ematen. Arratsalde osoa hari begira, pasa nuen galdezka, "honek nola ateratzen dio hotsa hori soinu horrekin!".

**Gainera berarekin ikasteko aukera izan zenuen.**

Lagun batek esan zidan Azpeitia aldean ibiltzen zela irakasten.

Maisu ona zen baina gogor samarra, guk behar ere bail "Hau ondo egin!" eta "hura zuzendu behar dek", horrela

aritzen zen. Eguneko bost duroko jorrala eta puro bat edo bi eskatzen zizkigun. Baina majua zen bestela.

**Hala ere, bakardadean hil zen.**

Umezurtz izan zen. Donostian jaio eta Zorroagan hil zen. Bakartia zen. Azken urteetan pobrezian ikusi nuen.

Lagun artean dirua biltzen aritu nintzen, Orion eta Aialdean ere bai. Azpeitian Maltzetak egin zion. 7.000 erreal bildu nituen hari emateko. Zorroagako erresidentzian zela banekien eta hara joan nintzen Elgetaz galdezka. "Berandu zatoz, atzo enterratu zuten" erantzun zidaten.

7000 erreal neuzkan. Eta diruarekin meza nagusia eskaini genion. Maltzetak Azpeitian eta guk, ordu berean, Donostiako Santa Marian meza jarri



genuen.

**Elgetaren soinua zure eskutik geratu zen.**

Nik soinua hartuko nukeela esan nion Zorroagakoari eta ea zenbat balio zuen. Hartzeko esan zidaten, estimatua zegoela nere ahalegina.

Gutxi erabiltzen nuen ordea. Orduan larbekoei saldu nien. Neronek alperrik galtzeko, beste batek aprobetxatuko zuelakoan.

## Eguberriek utzi duten arrastoa iruditan



**A**skatasunak antolatuta, Olentzero errebeindikati-boa izan zen Gabon gauean. Herriko auzo guztietan izan ondoren, frontoian amaitu zuten ekitaldia 19:30ak aldera. Euskal Presoen Euskalherriatzea izan zen aldarrikapen nagusia.

**U**rtero bezala, haur, gazte eta guraso asko bildu zituen Ziortzak antolatu ohi duen Jaiotzak. Auzo guztiak kantuz alaitu eta gero, frontoian amaitu zen. Azken urteetan ez bezala, ordea, frontoian ez ziren Jaiotza eta Olentzeroa elkartu.



**G**uaren lehen orduetan urtezahar gaua zela eta antolatutako diskotekara herritar gutxi gerturatu bazen ere, goizaldera oso giro beroa sortu zen. Herriko dj-ak lan txukuna egin zuten, guztion gustoko musika jartzen.

**U**rteroko zitari hutsik egin gabe, Meltxor, Gaspar eta Baltasar hiru erregeak izan genituen herriko frontoian. Jende ugari zegoen beraien zain. Umeak ilusioz gainezka, gurasoak seme-alabak geldirik eduki ezinean eta erregeak hurrei zintzoak izan diren edo ez galdezka.



**Z**umartek antolatutako Zabesbatzarekin, amaiera eman zitzaion herriko taldeek antolatutako kultur hilabeteari. Bertan sortu berria den talde berria ikusteko aukera izan zen, 17 eta 24 urte bitarteko taldea. Gabon kantak, nazioarteko abestiak eta abar. entzuteko aukera izan zen Salvatore elizan.

## UDALA

Dagoeneko Joxe Antonio Altuna itzuli da bere betiko bulegora. Espainiako armadarekin ez kolaboratzeagatik inhabilitatuta egon da 2000. urte osoan, eta alkatezako lanak ezin izan ditu burutu. Alkatezako bulegoan azken hilabete hauetan Artzabalgo babes ofizialeko etxebizitzaren inguruko informazio eskaintzen zuen langilea egon da. Orain, ordea, bertara joanez gero Joxe Antonio aurkituko duzu lanean eta jendaurreko harremanak ere bertan egingo ditu, orain arte bezalaxe.

## PALA

Urtarrilaren 6an jokatu zen Usurbilgo Pilota Elkarteak eta herriko Pilotazaleak izeneko taldeak elkarlanean antolatutako gazte mailako II. Pala Txapelketako finala. **Asier Arruti** eta **Mikel Mujikak** irabazi zuten, Haritz Esnal eta Jon Arruti bikoteari 30 eta 26 gailendu ostean. 3. eta 4. postua Jokin Zubiaur eta Josu Arruti bikotearen eta Patxi Bengoetxearen artean lehiatu behar izan zuten. Azken emaitza 30 eta 25 izan zen eta bikote irabazlea Jokin Zubiaur eta Josu Arruti izan zen. Guztira zortzi bikotek parte hartu dute

## EUSKARA

Lehen kirol arloan egin bezala, Buruntzaldeko udalek elkarrekin lan egingo dute aurrerantzean euskararen alde. Eta kirol arloko elkarlanean parte hartu ez bazuen ere, Astigarragako Udala ere gehitu da egitasmo berrira. Hala, berriki Udalak ontzat eman du aipatu hitzarmena gobernu batzordean.



## Udarregi Zaharra okupatu dute gazteek gazte asanbladaren 2. urteurrenean

**G**azte Asanbladaren 2. urteurrena ospatzeko abenduaren 29an ekitaldi ezberdinak egon ziren, besteak beste, bazkaria, ipuin kontalaria eta tertuliyak. Gauean "Legeen beltza" eta "Bletz" taldeek kontzertua eskaini zuten UGAko lokalean.

Duela bi urte gazte asanbladaren inguruan herrian sortutako mugimendua gogora ekarri nahi izan dute, eta hura berreskuratu nahian ere ahalginak egin. Jon Aizpuruak adierazi digunez, "duela bi urte 100 gazte gerturatu zen bazkaltzera antolatu genuen

*Gazte Egunean". Orduan, Gazte Asanblada eraberritzea zen erronka, batez ere bi helbururen inguruan; "batetik, kuadrillismoa apurtzeko eta, bestetik, gazteen pasibitatearekin amaitzeko".*

Azken hilabete hauetan Udarregi Zaharreko beheko solairuko lokalean egon badira ere, une honetan eraikin osoa "okupatu" dutela esan digute. AEKak zituen lokalak ere erabiltzen dituzte eta erabilpen ezberdinak ematen dizkiote; bilera gela, ikaste-

ko lekua... eta liburutegi txiki bat ere egin nahi dute. "Honen helburua jendeari gaztetxe batek bizia izan dezakeela erakustaraztea da eta Udarregi Zaharra bota bitartean, horixe izango da gure erronka".



**P**asa den abenduaren 19tik 30era, Udarregi Zaharrean udal fototekak argazki erakusketara antolatu zuen. Abenduaren 20an duela sei hilabete inguru hasi zen lanaren urkezpena egin zen, eta bertara 20 lagun inguru gerturatu zen. Erakusketan udaleko argazkiez gain, orain arte digitalizatu diren argazkiak ordenagailu batean ikusgai egon ziren. 12 egun iraun duen erakusketara honetan guztira 420 inguru herritar hurbildu da, eta antolatzaileek positibotzat jo dute.



**U**rtero bezala Joxe Martin Sagardia "Usurbil", Joxe Luis Segurola "Nazkaz" eta Joxe Mari Aranzazistroke "Arrantzale" herriko gudari hilei omenaldia egin zitzairen pilotalekuan abenduaren 30ean. Gudariaren senitartekoei herriko preso- en senideek egin zieten lore-eskaintza eta, ondoren, abeslariaren txanda izan zen. Ezker abertzalearen izenean, Arkaitz Portularrumek idatzi bat irakurri zuen eta eusko gudariak kantatu ostean, omenaldiari amaiera eman zitzaion.

JOSVE  
ARANZAZISTROKI  
**IGELTSERITZA  
eta  
PINTURA**

Juan Jose enea. 6 Telf: 943 36 05 50  
Kalegora 606 37 21 05

## Kalkos kopisteria

- ☞ Fotokopiak
- ☞ Fotokopiak koloretan
- ☞ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ☞ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ☞ Planoen kopiak (AO arte)
- ☞ Ordenadoreko lanak
- ☞ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ☞ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea  
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

## ITURGINTZA

**JOSEBA  
ARANGUREN**

Telf: 943 36 43 64

## Arau subsidiarioak aldatzeko prozesua emango da hasi berria den urtean

**D**atorren urtea, urte garrantzitsua izango da gure herriarentzat. Izan ere, herri bat egituratzen duten arau subsidiario berriak onartuko baitira. Itzal handiko erabakiak dira herri baten-entzat. Horregatik, erreportai honen helburua herritarrei arau subsidiario hauek zer diren eta herritarrontzat eta gure herriarentzat zer nolako garrantzia duten azaltzea izango da.

Etorkizuna aurreikustea ia ezinezkoa da, baina presta eta egitura daiteke; ezin dugu esan gure herria zer izango den, baina bai zer izatea nahi dugun. Etorkizun hurbileko Usurbil eraikitzea da, hain zuzen ere, arau subsidiarioen egitekoa.

Arau hauen bitartez, luraren erabilpena, sailkapena eta lur-eremuak babesten dira indarrean dauden urte guztietan. Hedapen urbanistikoa eta industrialia, herritarrontzat behar diren aisialdirako eta kulturarako gunek, nekazal-lurrak, paisajearen mantenua eta abar luze bat zehazten da.

Gainera, Usurbil bezalako herri batentzat are garrantzitsuagoak dira, batez ere, kontutan izanik Donostia aldameanean dugula. Gaur egun Donostiaren zabalkunde prozesua ikusirik, inguruko herriek oso zaila dute beren nortasuna mantentzea. Jadanik martxan dauden hazkuntza prozesuek okupaturik dituzte eskualdeko lur erabilgarri gehienak eta pixkanaka hutsik aurkitzen diren eremu berriak bilatuz doaz. Donostian Ibaeta, Igara, Loiola inguruak... Oiartzunen auzo desberdinen arteko hutsuneak betez doaz.... Lasartek jadanik ia erabat okupaturik du bere lur erabilgarri guztia...



Honen ondorioz, ez litzateke batere harrizkoa urbanizatze prozesu honek Usurbilgo zelaietan aurkitzea bere jarraipena, guk, herritarrok eta Udalak, aurre egiten ez badiogu.

### 1990eko arau subsidiarioak datorren urtean berrituko dira

Usurbilgo lehen arau subsidiarioak 1990ean onartu ziren. Urte horretan 1963an onartu zen Plan Orokorra bertan behera uzten da astakeri asko jasotzen zituelako, eta azken 11 urte hauetako plangintza osatzen da arau subsidiarioen bitartez. Beste udalerrietan ere egin da halakorik, eta era honetara, ingurumenaren babesa ordenantzen bidez garatzeko bidea irekitzen da, beti ere eskumena duten beste administrazio publikoen araudiarekin kontraesanik sortzen ez den heinean.

Lehen aipaturiko "eraso" horri aurre egiteko hainbat lur ez urbanizagarri izendatzen da eta 1990ean, adibidez, zazpi moten arabera sailkatu ziren, bakoitzari kategorია eta balio bat emanez; hala nola, lur paisajistikak (Arratzaingo lurrak), lur aldapatsuak (San Esteban), agrologikoak, naturalistak

edota lur kulturalak (ontzi-olak, Andatzako trikuharrak...).

Arau hauek azken 11 urte hauetan euren garapena izan dute. Udalak bilakaera zertan izan den adierazten duen diagnostiko bat egin berri du. Industri hazkundera dagokionez, nabarmene-

na Oria ibaiaren inguruko erriberan kokatu den industrialdea dugu. Atallu industrialdearen bitartez Zumartegi eta Ugaldea komunikaturik gertatzen da.

Hazkunde urbanistikoari dagokionez ere, emaitzak nabarmenak dira. 11 urte hauetan 209 babes ofizialeko etxebizitzak eraiki dira eta 400 inguru etxebizitza pribatu; hala nola, Galtzaragainan, Kalezarren, Aginagan, Txaramuton eta eraikiko diren Artzabalgo etxebizitzak. 1990ean arau subsidiarioak onartu zirenean, irizpide hauxe markatu zen; hiri-lurren barruan eraikitzea eta nekazaritza kutsurik handieneko txokoetan ez urbanizatzea, hala nola, Aginagan, Zubietan edota Txokoalden.

Arestian esan bezala, datorren urtean aldatuko da normatiba. Hori dela eta, gestioan dagoen udal-taldeak, Batasunak, urte honetarako prozesu bat ireki du herritarrok arau subsidiarioen inguruan gure iritzi eta aportazioak jaso ahal izateko. Hilabete honetan zehar osatu berri den diagnostikoa azalduko da, gero Batasunak bere proposamena igorriko du eta hauen inguruko eztabaida irekiko da, bakoitzak nahi dituen emendakinak

# Peñagarikano-Barberena bikotea Urrezko Aizkorako finalerdietara sailkatu da

**A**benduaren 30ean herriko pilotalekuan Binakako Urrezko Aizkorako A multzoko bigarren jardunaldiko lehia jokatu zen. Bertan A multzoko bi bikote izan ziren nor baino nor; alde batetik Peñagarikano eta Barberena eta, bestetik, Mindegia eta Senosiain. Joxemiel Peñagarikano eta Joxe Juan Barberena bikotea izan zen garaile, eta lehen fasea amaitzeko beste jardunaldi bat falta den arren, finalerdietan jokatzeko txartela eskuratu zuten. Mindegia eta Senosiainaurrera egiteko aukerarik gabe geratu dira.

Herritar eta kanpotar ugari gerturatu zen abenduaren 30ean herriko pilotalekura Binakako Urrezko Aizkorako lehia ikustera. Peñagarikano eta Barberena izan zen garaile, Mindegia eta Senosiain bikotea 10-5 mendean hartu eta gero.

Saio osoa nahikoa parekatua izan zen. Izan ere, azken saioan, txanda librean, erabaki baitzen norgehiagoka. Goi-



zari txanda librean ekin zioten. Biko bakoitzak 80 ontzako enbor bat moztu behar zuen, eta Mindegia eta Senosiainek irabazi zuten.

Jarraian buruz buruko saioa jokatu zen, kanaerdikoa nork lehenago bota. Saio honetan Peñagarikanok eta Barberenak puntu gehiago lortu zituzten. Lehen fasea amaitzeko 60 ontzakoarekin aritu behar izan zuten aizkolariek buruz buru, laurak batera. Mindegiak ira-

bazi zuen. Minutu eta 36 segundotan amaitu zuen bere lana. Peñagarikano, Barberena eta Senosiain sailkatu ziren bere atzetik, hurrenez hurren.

Txanda libreko saioa hasi aurretik, Mindegia eta Senosiain ziren aurretik, 5 eta 4. Azken saio honetan erabaki zen garaipena. Peñagarikanok eta Barberenak sekulako lana egin zuten eta ia minutuko alde kendu zieten aurkariari. Sei puntu zeuden jokoan eta azken emaitza 10 eta 5 izan zen.

## Joxemiel Peñagarikano: "Banakako saioan nere burua oso ondo ikusi nuen"

**Igandean nola ikusi zenuen zure burua?**

Usurbildarra ez izan arren, bertako jendearen aurrean jolasteak urduritu egin ninduen. Hasieran nerbioso nengoen arren, proba amaitzerako lasaitu egin nintzen. Gainera, faboritoak besteak ziren.

**Nola joan zen goiza?**

Aurreneko partean oso parekatua izan zen. Baina txanda librean aurrea hartu genien eta uste baino hobeto ibili ginen. Banakako saioan ondo oso ondo ikusi nuen nere burua eta bikotea

ere, orokorrean, entrenamenduetan baino animatuago ikusi nuen.

**Noren aurka jokatu nahi duzu finalerdietan?**

Aukeran nahaiago nuke Nazabal eta Lopezen aurka jokatu. Arrospeide esperientzia handiko aizkolaria da eta oso bikote arriskutsua da.

**Itxaropenik finalera iristeko?**

Beste bi saio geratzen zaizkigu eta oraindik urruti xamar dago. Banakako saria ere badago, eta hori eskuratzea da nere helburuetako bat.

Peñagarikano eta Barberena jardunaldi baten faltan dauden arren, dagoeneko finalerdietarako sailkatu dira, Mindegiak eta Senosiainek Usurbilen bigarren porrota izan zutelako. Urtarrilaren 19an eta 20an jokatuko diren bi saioetan, lehen postuetan nor geratu izango dute jokoan.

Bestalde, harri-jasotzea ere egon zen. Aimar Irigoien 15 urteko gazteak sekulako ikusmira sortu zuen. 150 kiloko koadroarekin bi jasoaldi egin zituen, esku bakarrez, eta zazpi jasoaldi 138ko kuboarekin, 2 minutu eta 52 segundoko denboran.



# 106 urte pasa dira trenea lehenengo aldiz Usurbila iritsi zenetik

**B**ilbo- Donostia trenbidea 100 urte bete ditu aurten. 1901eko urtarrilaren 1ean Deba Zarautzekin lotu zuten, baina aurretik trenak Zarautz eta Donostia bitarteko bidea egiten zuen. 1895. urtean iritsi zen trenea lehenengo aldiz Usurbila eta ordutik hona bi ibilbide desberdin izan ditu: gaur egungoa bata, eta 1914 urte arte Hipodromoko zubitik pasa eta Zubietatik Txokoaldera joaten zena bestea.

1890. urtea baino lehen Bizkaia eta Gipuzkoa, Bilbo eta Donostia lotuko zituen trenbidea egiteko hainbat proiektu izan baziren ere, urte horretan hasi ziren Donostia eta Elgoibar bitarteko trenbidea egiteko lanak. Compañía del Ferrocarril Elgoibar-San Sebastian izeneko enpresak bultzatuta, eta lau urteko lan gogorraren ondoren 1895eko apirilaren 28an inauguratu zen Zarautz eta Donostia bitarteko trenbidea. Ordu arte zaldigurdiz betetzen ziren hamaika eginkizunetarako trenea erabiltzeko aukera izan zuten usurbildarrek.

Garai hartan trenak, ordea, gaur egun herrian egiten duen ibilbide bera ez zuen egiten. Ferrocarril de Elgoibara San Sebastian delakoak Zubietan lur batzuk erosi edo expropiatu eta Txokoaldetik hasi eta Zubietatik pasaz Lasarterainoko trenbidea egin zuten garai hartan. Ruin base-



*Txaparreneako garai bateko tren-geltokia*

erriko Antonio Astiazarani, adibidez, Orbeldiko elektrizitate lantegitik Ameri aurrerainoko lur zati bat expropiatu eta 1.142 pezeta eta 96 zentimo eman zitzaizkion 1892. urteko apirilaren 30ean, baina peritoek egindako behin-betiko expropiazioaren informearen ondoren 265 pezeta eta 51 zentimo gehiago ordaindu zizkieten 1909. urtean.

## Trena Zubietatik pasatzen zen garai batean


Donostiatik etortzerakoan trenea Irubiden sartzen zen herriko lurretan eta gaur egun Luzuriaga lantegia dagoen lekutik Lasarterako geltokira joaten zen. Hemendik Zubietako bidea hartzen zuen. Izan ere, hipodromoko zubia trenak

Oria ibaia zeharkatzeko eraiki zuten XIX. mendeko azken hamarkadan.

Gaur egun Lasarteratik Zubietara joateko erabiltzen dugun bidea trenbidea zen garai batean. Telleri baserriaren atzetik Altzu baserriaren azpitik Aizpururaino joaten zen, hemen baitzegoen Zubietako apeaderoa edo geltokia. 1895. urteko apirilaren 28an Usurbilgo udalean egin zen udalbatzan, adibidez, Zubietako apeaderoa jartzera zihozela egiaztatzen da. Izan ere, geltoki hori kontrabandorako egokia izan zitekeela eta beraiek zaindu ezin zuten neurriak har zitzatela esanaz idatzi bat bidali zitzaion Probintzia mailako komisioari.

Ez zen hau, ordea, Zubietako apeadero bakarra, aurrerago,

Kale Nagusia, 9 USURBIL  
Tlf. 943 37 33 48  
943 37 09 13



**TXIRIBOGA**  
**TABERNA**

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

**TRUKE**  
**TRUKE**  
**JANTZIAK**  
**TRUKE**  
**Beherapenak!**  
Erdiko kalea, 2  
Tel:37 34 81

gaur egun Irubietako etxe berria dagoen leku horren inguruan beste geltoki bat baitzegoen. Zubietan Ori ibaiaren ondoko lurretatik pasatzen zen trenbidea Amiri Beheraino. Bertako jabeek, gainera, duela sei urte erosi zituzten 1895. urte inguruan trenbidea egiteko kendu zizkieten lurrak. Izan ere, 1914an trenbide berria egin zutenean Estaduaren esku gelditu ziren eta 100 urte pasa ondoren lur horiek salgai jarri zituen Estaduak.

### Donostiarrak Berritza Barrenara trenez

Amiri baserriatik aurrera, gaur egun Santueneara joateko dagoen bide bera erabiltzen zuen garai batean trenak. Herriko geltokia, berriz, Zorro-zako zubiaren ondoan zegoen. Aialdenea baserriaren aurrean Valdesen etxea izenez ezaguna den etxe txiki hori tren geltokia izan zen 1895etik 1914. urtera bitartean. Hortik aurrera Sañarrienea baserriko ataritik pasa eta Errotaberri zentralaren aurretik Txokoaldera joaten zen tren.

Gaur egun Santueneatik Txokoaldera joateko erabiltzen den erriberako bide hori ere trenbidea zen garai hartan, tunela 1914. urterako egin baitzuten. Bide honetan ez zegoen geltokirik, baina tren behin baino gelditzen zen Berritza Barrena baserriaren parera iristean. Donostia aldean, nonbait, famatua zen bertako sagardoa eta tren berezia jartzen zuten hara joateko.

Erribera erdian tren gelditu eta Berritza Barrenara joaten omen zen jendea sagardoa edatera. Bi egun han pasa ondoren leku berean itzulera-ko tren hartu eta Donostiara itzultzen omen ziren berriz. Txokoalde eta Aginagara zihozenak, berriz, Txokoaldeko geltokia, Aginagako geltokia ere deitua, erabiltzen zuten. Hortik aurrera, gaur egungo bide bera erabiltzen zuen trenak.

1914rako, ordea, trenbide berria egin zuten Usurbilen, guk gaur egun ezagutzen duguna hain zuzen ere, eta trenbide zaharra eta orduko geltokiak ezerezean gelditu ziren. Txokoaldeko geltokia mantendu eta beste hiru berri egin zituzten: Usurbilgo geltokia (gaur egungoa), Txaparrena eta Txikierdikoa. Gaur egun, ordea, herriko geltokian bakarrik gelditzen da tren. Txokoalden geltoki berria egin zuten, baina azken 12 urtetan han ez da trenik gelditu. Hainbat asto eta baserriar ikusi izan dituen Txaparreneako apeaderoa ere aspaldi bota zuten eta Lasarteko geltoki

modura erabiltzen zen Txikierdiko geltokia ere desagertu zen.

Txikierdiko geltoki honetara Plazaolako tren ere iristen zen garai batean. Geltokiaren aurreko karrilak Donostia-Bilbo ibilbidea egiten zuten trenak erabiltzen zuten, eta atzekaldeko karriletatik, berriz, 1904an sortu zen Plazaolako tren etortzen zen. Izan ere, 1911n Plazaola tren Txikierdiko geltokira iritsi eta kostaldeko trenarekin bat egiteko erabakia hartu zuten eta 1914an inauguratu zen Ferrocarriles Vascongadoseko eta Plazaolako trenen Txikierdiko lotunea. Hasiere batean Plazaolako tren lruñeatik Andoainera etortzen zen Leizarandik barrena, baina lotune hau martxan jartzearekin batera lruña eta Donostia trenbidez lotu zituzten. Lasarte eta Usurbilgo lurretatik pasaz Txikierdira iristen zen Plazaola tren honen bizitza, ordea, ez zen oso luzea izan, 1953ko uholdeen ondorioz azpiegiturak kalte handiak izan eta eten egin baitzuten lruña eta Donostia arteko ibilbidea.



MIKEL  
IZAGIRRE

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37  
Kalezar  
Telf: 943 36 50 95



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55

Pinturas  
Ion



943 83 09 37 ☎ 670 397504

## Euroaren garaiko lehen merkealdia ere iritsi da gure dendetara

**E**uroei neurria hartzen hasi garenean iritsi dira urtarrileko beharpenak.

Dagoeneko izango dira lehen erosketak egin dituztenak. Izan ere, merkealdien ohitura sasoi jakin batzuetan errepikatzen bada ere, urtarrilekoak dira guztien artean ezagunenak. Merkealdiak legearen arabera araututa daudenez, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Elkar-tearengana jo dugu informazio eta aholku eske.

Hasteko, merkeago saltzen den produktuak kalitate-arau guztiak bete behar ditu. Etiketak, halaber, prezioarekin lotuta dauden xehetasun guztiak jaso behar ditu. Etiketak, gainera, ezin du akatsik izan.

Kontsumitzaileen elkarteko kideek azaldu digutenez, merkealditan jartzen diren salgaiak, gutxienez hilabete egin behar izan dute aurretik denda berean; eta inolaz ere ezin daitezke merkealdietarako soil-soilik jarri, ezta ekarri ere.

### Jendea Eguberrietan hasi zen galdezka

Merkealdiak urtean bitan bakarrik egin daitezke: bata, urte hasieran; eta bestea, udako sasoiari begira. Astebete gutxienez eta bi hilabete gehienez iraun dezakete. Egutegia, berriz, Eusko Jaurlaritzak zehazten du. Urtarrilaren 7an hasi eta martxoaren 31a bitartean luzatu daitezke merkealdi denboraldia.

Dendako arduradunak bategatik Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailari merkealdiak noiz hasiko diren adierazi behar dio. Eta bestetik, beharpenen



epea zenbat denbora iraungo duen ere jakinarazi behar die kontsumitzaileei.

Merkealdien gorabeherak nolakoak diren jakin nahian Mahuka dendako kideengana jo dugu. Hauek ere urtarrilaren 7an jarri zuten martxan merkealdien garaia. Nekane Iriondok bertan egiten du lan eta harrituta dago jendea aspalditik merkealdiak noiz hasiko ziren jakin nahian hurbildu zaielako.

"Eguberrietan hasi ziren merkealdiak noiz hasiko ziren galdezka. Eta egun horietan %15eko beharpena egiten ari ginen!", adierazi digu Mahuka dendako kideak.

Merkealdietan jende gehiago hurbiltzen dela ere azaldu digu: "jende asko etor-tzen da egun horietan, beste garai batzuetan baino gehiago".

Bide batez, euroarekin nola moldatzen den galdegin diogu Nekaneri. Dirudienez, jendeak pezetak eta txartelak erabiltzeko ohitura handiagoa du oraindik. "euroa ere erabiltzen da baina pezetak pisu handia du oraindik", adierazi digu Nekane Iriondok.

### Aholku merkeak aukeran

- Ondo pentsatu etxeratu nahi duzun hori erosteak benetan merezi duen.
- Aukeratu duzuna erosi aurretik, goitik behera azertu.
- Hartutako produktua itzultzeko aukera ote dagoen galdetu.
- Ez ahaztu faktura edota tiketa eskatzeaz. Erreklamazioa egiteko beharrezkoa da eta.
- Bi prezioak agertu behar dira. Beharpena egin aurrekoa eta ondorengoa.
- Salneurriak eurotan eta pezetatan agertu behar dute.
- Erositakoa hondatuta badago saltzaileak ondo dagoen batengatik trukatzera behartuta dago.
- Zalantza bat baduzu, galdetu Kontsumitzaileen Elkartean. Doaneko telefono zenbakia: 900 600 500.



## Lehiaketa



## Nola izena du baserri honek?

Asmatzaileen artean  
Elizako organoko  
CDa eta Noauako  
kamixeta  
zozketatuko ditugu

### 126. aleko erantzuna



Azken aleko pertsonaia  
Yolanda Arrieta da, Usurbilen  
bizi den arren, Etxebarriakoa  
da (Bizkaia). Ipuin kontalaria,  
idazketa lantegietako ardura-  
dun, idazlea eta telesailtako  
gidoilaria da.

#### Irabazlea

Andoni Arruti Beldarrain

#### Saria

Bordatxo tabernan bi  
personentzat afaria



## ALKORTA AUTOZERBITZUA

**FRUTAK  
BARAZKIAK  
ETXEKO PRODUKTUAK  
KONGELATUAK**

Behoko kalea. 4  
Telf: 943 36 57 42

## LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA  
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA  
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48  
Mobila: 609 888021

## P A T R I

J A T E T X E A  
Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



### HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater  
konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17



H A U R J A N T Z I A K  
M E R K E A L D I A K !



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

# A genda

## URTARRILAK 14 astelehena

- Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz Etxerat-en enkartelada arratsaldeko 20.00etan.

## URTARRILAK 21 astelehena

- Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz Etxerat-en enkartelada arratsaldeko 20.00etan.

## OHARRAK

- ✎ Munalurran garaje bateko marra salgai . Telf. 943 362424
- ✎ Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- ✎ Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara .
- ✎ Neoprenozko traje bat dut salgai. Rip Curl marka eta L taila. Prezio interesgarria. Telf. 653728059.
- ✎ Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitoreak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonoetara.
- ✎ Umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska bat behar dut. Lan ordutegia goizeko 8.00etatik 14.30etara. Telf. 943366952
- ✎ Pisukide baten bila gabiltza Lizarran pisua osatzeko. Interesatuak deitu 699 876 702 telefonora.
- ✎ Trialeko motoa salgai. Montesa Cota 335. 150.000 pezeta. Interesatuak gauean deitu 943 370767 telefonora.
- ✎ Usurbilgo taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. Interesatuak deitu 943 360080 telefonora (Marijo).
- ✎ Neska bat eskaintzen da arratsaldetan ordu pare batez haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 366485 telefonora.

- ✎ Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.

- ✎ Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469

- ✎ Edozein ohetarako balio duen erabili gabe dagoen trapezio bat salgai. Deitu 943 835441 telefonora (Begoña).

- ✎ Pisu bat dut salgai. Deitu 13.00etatik 15.00etara edo 20.00etatik aurrera 943 372983 telefonora (M<sup>re</sup> Angeles)

- ✎ "Dia" supermerkatuaren ondoan dagoen garaje itxi bat dut salgai galtzaragainan. Interesatuak deitu 943 372831 telefonora.

- ✎ Emakume bat eskaintzen da astean hiru egunetan, goizez lau edo bost orduz lan egiteko. Interesatuak deitu 943 36 43 10.

- ✎ Emakume bat behar da jatetxe batean egun erdiz garbitasun lanak egiteko. Interesatuak deitu 943 36 27 13 telefonora.

- ✎ Pertsona bat hartuko nuke arropak garbitzeko apopilo bezala. Gela individuala. Interesatuak deitu 943 36 57 37 telefonora.

- ✎ Abenduaren 2an, igande goiza, jertsea galdu nuen (urdira marra zuriekin). Norbaitek aurkitu badu deitu mesedez 943 37 19 75 telefonora. Gaeuz deitu.

- ✎ Fisika eta kimikako klaseak emateko irakasle bat behar da. Interesatuak honako telefono zenbakira deitu: 943 36 21 41 (arratsalde).

- ✎ Emakume bat eskaintzen da, goizeko 9:00etatik eta 14:00etara ostalaritza edo etxeko lanetarako, derri-gorrezkoa da gizarte segurantz. Interesatuak deitu 943 36 43 40 telefonora.

## Arau subsidiarioen inguruko eztabaidak: diagnostikoaren aurkezpena

✘ Urtarrilak 10, osteguna  
18:00etan Txokoalden, Akerria gaztetxean.

✘ Urtarrilak 12, larunbata  
11:30etan Zubietan, Eskola Txikian.

✘ Urtarrilak 15, asteartea  
19:00etan Santuenean, Zaharren egoitzan.

✘ Urtarrilak 17, osteguna  
19:30etan Kalezarren, Hautzaindegian.

✘ Urtarrilak 19, larunbata  
11:30etan Aginagan, Eliz Etxean.

✘ Urtarrilak 22, asteartea  
19:30etan Kaxkoan, Udarregi Zaharrean.

**Antolatzailea: Batasunako udal taldea.**

**Herriko haur eskolari izena ezin jarrita dabilta oraindik. Proposamenen bat egin nahi baduzue deitu 943 37 40 61 telefonora edo bidali bertako buzoira.**



**ZUMETA  
JATETXEA**

## ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)

## ESTETIKA ZENTROA

*LOURDES LARRAÑAGA*

Urtarrilaren 14ean, arratsalde osoan doaneko kontsulta  
MARIA DIAZ FERNANDEZekin: NATUROPATA,  
IRIDIOLOGA-DIETISTA

- Hileko eta azaleko arazoak, psoriasis, alergiak, zirkulazio-arazoak, pisuaren kontrola....

Ordua aldeaz aurretik eskatu 943 36 28 87

# Baditugu Noaua! Kultur Elkarteko hiru xextuen irabazleak




**U**teroko ohiturari jarraituz aurten ere herriko produktuez osatutako xextuak zozketatu ditugu. Gabonak pasa ondoren dietan jartzeko garaia dela behin baino gehiagotan entzun dugu, baina *Noaua!*ko xextuak etxera eraman dituzten hauek nahikoa jan eta edateko aukera izango dute.

Bazkideen artean banatu ditugun bi xextuak Ibon Aranzazistoki eta Gurutze Pagolarentzat izan dira. Publizitatea jartzen dutenen artean zozketatutakoa, berriz, Berantz Akademiari tokatu zaio.

Zorionak hiruroi, baita beste bazkide eta publizitate jartzaileei ere, zuek ere Noaua!ko partaide garrantzitsuak baitzarete!

## Urtarrileko lehen alearekin batera, 2002. urteko egutegia, tapak eta aurkibidea



2002. urteko egutegia eraberriturik datorkigu. Bertan hainbat kontu aurkituko dituzu; argazkiak, ilargi kontuak, landareak noiz erein...

Egilea: Zaloa Arnaiz

Aurten ere 2001eko Noaua! guztiak koadernatzeko aukera izango duzu. Tapak Noaua!ko egoitzan, Lizardi eta Lauroken eskuratu ahal izango dituzu.

Egilea: Olatz Goenaga

Ale honekin batera ere 2001eko aurkibidea izango duzu. Bertan lehengo urtean kaleratutako Noaua! guztietako informazioa nola aurkitu era txukunean azaltzen zaizu.

Egilea: Aitziber Aranberri



**Egin txotx! Herriko-tolare**


**Sagardotegietan!**

**Telf: 943 35 67 10- 37 06 68**

**Aginaga**

Urte guztian egunero  
irekita astelehenetan ezik

**A G I N A G A  
SAGARDOTEGIA**



Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera

**Zubieta, Telf: 943 36 20 49**

***Egin txotx!***

Urtarrilaren 7-tik aurrera  
irekita eguerdiz eta gauzez  
Menua: 21€

Zubieta auzoa  
tlf: 36.12.29



Sifonaria

Sagardotegia

**ASTIAZARAN**

Zubieta, Telf; 943 36 12 29  
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

**SAIZAR  
SAGARDOTEGIA**



Kalezar, Telf; 943 36 22 28  
Igande gauetan eta astelehen eguerdian itxita.